



**Edurne Txoperena | IKASBIDE IKASTOLA (DONOSTIA)**

**2. saria**

([www.ikasbideikastola.net](http://www.ikasbideikastola.net))

**LEHEN HEZKUNTZA II**

## **“KOSMODISEAK ASKO LAGUNTZEN DIE IKASLEEI AHALEGINA AINTZAT HARTZEN”**

Edurne Txoperena da Donostiako Ikasbide Ikastolako “Kalakatsu5” taldearen irakasle arduraduna. Hain zuzen, Kosmodiseako bigarren saria irabazi dute, Lehen Hezkuntza II etapan.

Ikasbide Ikastolakoek Kosmodisean parte hartzen duten laugarren urtea dute, eta euren aburuz, proiektu honek teknologia berriekin lan egiteko aukera ematen die ikasleei. Aldi berean, taldeko lana eta lankidetzaz garatzeko bideak ere ematen dizkie.

- Zure ustez, ekimen honetatik zer iruditu zaie interesgarriena ikasleei?  
- Ziur asko, edizio digitaleko lana. Halere, izugarri gustatu zaie saritu, eta opari material bat jasotzea.

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?

- Gure ikastolak bi talde aurkeztu ditu lehiaketara. Batek irabazi egin du; besteak, aldiz, ez. Ikasleek ez dute ulertzen zein diren bi lanen arteko aldeak eta zergatik saritu duten bata eta bestea ez.

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?

- Interesgarria da ikasleek beste ikastetxeetako ikasleen lanak ikusi eta aztertu ahal izatea. Interesgarria da, halaber, ikasleek ahalegindu eta taldean lan egiteko erakusten duten gaitasuna. Gure ustez, guztien ahalegina lan bakarrean metatu behar izatea asko gustatu zaie.

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?

- Giza balioak landu behar direla da gauzarik onena; eta baita lan digitala egiteko teknologia berriak erabili behar izatea ere.

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?

- Bai.

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...

- Gure aburuz, Kurasaaleko azken ekitaldia ez da oso aproposa; uste dugu pikutara bidaltzen dituela ikasturtean barrena landutako giza balio guztiak. "Pobrezia" izan dugu gai nagusia, eta hori hala izanda, kontrakoa dirudi ikasle gutxi batzuk baino ez saritzea, eta gainera opari materiala ematea (mp3 bana). Ikasleei opari materialak ematearen aurka gaude, beraz. Ekitaldi horretan sortzen den giroa ez dator bat, inola ere, gure ikasleekin lantzen ditugun elkartasun balioekin. Horregatik, pantaila erraldoian agertzen diren MP3 horiek gutxi batzuei ematearen aurka gaude. Haurrek berekoikerira jotzen dute horrelakoetan, eta ez dituzte beste ikastetxeetan saritutako lanak aintzat hartzen. Gure aburuz, Kosmodiseako arduradunek eurek arduratu beharko lukete hori hala izan ez dadin, eta guztia beste era batean antolatu beharko lukete. (Lehenengo Hezkuntzako ikasleekin, behintzat, halaxe gertatzen da).

*Proposamena: Ikastetxeen eta ikasleen artean sortzen den lehia hori beste bide batetik eraman beharko litzateke. Banakoei sari materialak eman beharrean, ondo legoke taldeari materialak ez diren sariak ematea (irteera pedagogiko-ludikoak, "Senda Viva", musika ikuskizun baterako sarrerak, edo dantzarako edo antzerkirako sarrerak, kirol parke edo parke ludiko batera joateko aukera, etab.).*

*Gure ikastolan denboratxoa daramagu gai hori aztertzen. Azkenean, erabaki genuen, noizbait irabaziz gero, Kosmodiseako opari guztiak ikastolan bertan geratuko zirela (baita ikasleei eta irakasleei emandakoak ere). Aurten, saria irabazi dugu lehen aldiz, eta ikasle guztiek erabili ahal izango dituzte sariak, irabazi dutenek eta irabazi ez dutenek, orain eta beti; izan ere, gure ustez, guztiak dira irabazleak.*